

“Daytonako aerodromoan lehiatutako munduko txapelketan eman nezakeen dena eman dut”

Gurutze Frades
Triatleta • 27



Logela Multimediak umeentzako ikuskizun berria estreinatuko du domeka honetan: 'Tartalo'

Elorrio | Ipuin tradizionalen agertzen diren beldurrezko elementuak umorezkoengaitik ordezkatu dituzte lan berrian. • 24



Durangoko Azokak aurreikuspenik ezkorrenak irauli ditu. Gerediaga elkarteak modu positiboan baloratu du inoizko azokarik ezohikoenak utzitako balantzea: 27.758 produktu saldu dira sareko dendan. Erantzun "ikaragarria" izan dela nabarmendu du Gerediagak. • 25



Taupada ez da eten

Berrizko Udalak Mankomunitatean sartzeko eskaria egingo du

Berriz | 22 urtean bertatik kanpora egon eta gero, Berrizko Udalak Durangaldeko Mankomunitatera bueltatzeko eskaria egin du. Prozedurak Berrizko EAJren aldeko botoekin egingo du aurrera. EH Bilduk eta Podemosek kontra bozkatu dute. PSE-EE abstenitu egin da. • 11



4-ALKI

Dekorazioa eta berriztatze integralak

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Go!azen, ikuskizunak eta elkarteek ekitaldiak, Durangoko Gabonetako egitarauan

Udatik honako bide arrakastatsuari jarraituta, Durangoko Udalak kulturaren aldeko apustu garbia egin du Gabonetako egitarauan. Guztira, adin eta gustu guztietarako 40 kultur ekitaldi antolatu ditu asteburu honetatik Erregetara arte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hasi Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Amaren intxaurrak* ikuskizunetik, eta jarraitu *Erra-dikalak ginen* bertso-antzerkirai-no. Segi Sustrai Colinaren, Miren Artetxeren eta Bittor Altuberen bertso saiotik, herriko elkarteek antolatzen dituzten ekitaldietara ailegatu arte. Bada, ekin horrela, 40 ekitaldi osatu arte.

Durangoko Udalak Gabonetako egitaraua aurkeztu du asteen eta argi utzi du udatik honako bide arrakastatsu berari helduko diola Gabonetan. Kulturaren aldeko apustu garbia egin du. Horren erakusle da Gabonetako egitarauan adin eta gustu guztietarako 40 bat ekitaldi batu dituela. "Kalitatezko kultura eskaintza osatu bat egin gura izan dugu. Kultura segurua dela aldarrikatu gura dugu, eta Durangon gauzak ondo egiten direla", esan du Julian Rios alkateordeak. Juan Antonio Bueno kultura zinegotziak, bere partetik, ekitaldi guztietan orain arteko moduko "segurtasun protokolo zorrotzei" jarraituko dietela iragarri du. Era berean, azaldu du Eusko Jaurlaritzak egoeraren arabera hartu ditzakeen erabakiak kontuan hartuko dituztela, eta araudiak hala eskatuko balu ekitaldiren batzuk bertan behera utzi beharko lituz-



Udal ordezkariak eguaztenean eman zituzten Gabonetako egitarauaren xehetasunak.

ketela. Ekitaldi ez profesionalak, adibidez.

Olentzero eta Mari Domingi

Aurtengo berrikuntzetariko bat Olentzerogaz eta Mari Domingigaz igarriko da. Udalak photocall bat atonduko du Landako Gunean. Familiek bertara jo ahalko dute batagaz zein besteagaz argazkiak ateratzeko. Laura Vallejo kultura teknikariak photocallaren nondik norakoak zehaztu ditu. Abenduaren 22an, 0tik 3

urtera bitarteko umeak joan daitezke bertara. Abenduaren 23an, 4tik 6 urtera bitartekoak. Eta

Irakurleak 'anboto.org' atarian kontsultatu ditzake ekitaldi bakoitzaren xehetasunak

azkenik, abenduaren 24an, 7tik 12 urtera bitartekoak. Goizean eta arratsaldean egongo da pho-

tocalla. 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Ez da aurretiazko hitzordurik beharko. Horren ordez, familia unitate bakoitzak ilaran itxaron beharko du bere txanda ailegatzen den arte. Udalak familiei dei egin die bertara behin bakarrik joateko.

Ekitaldien xehetasunak

Ekitaldi guztietarako sarrerak aldeztu aurretik eskuratu beharko dira ezinbestean. Go!azen taldearen ikuskizunerako sarrerak

Eixu Artisau Elkarteak Gabonetako azoka egingo du Durangoko Landako Gunean

Eixu Artisau Elkarteak Gabonetako azoka egingo du abenduaren 18tik 22ra arte. Artisau eta sortzaileek euren lanak erakutsi eta salduko dituzte Landako Gunean. Askotariko artisautza lanak egongo dira bertan. Besteak beste, larrugintza, arropa diseinua, bitxigintza, zura, zestogintza, kosmetika naturala eta ilustrazioak. Eixuko kideek adierazi dute "oso gogotsu" ari direla azoka antolatzen. Xehetasun guztiak lotzen dabilta bisitariek artisautzaz modu seguruan gozatu dezaten. "Gabonetako opari berezi eta bakarrak eskuratzeko aukera" izango dela aurreratu dute. Azokaren ordutegia 11:00-14:30 eta 16:30-20:00 izango da.

abenduaren 28an ipiniko dira eskuragarri. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizunerakoak, abenduaren 22an. Doakoak diren ekitaldietarako sarrerak durango.eus edo Durango Kulturaz Blai aplikazioan eskuratu ahalko dira. Ordainpekoak, Arte eta Historia museora joanda, Kutxabanken edo 94 603 00 20 telefono zenbakira deituta.

Ekitaldi bakoitzaren xehetasunak kontsultatzeko, irakurleak anboto.org atarira jo dezake.

San Faustoko frontoia horma irudi erraldoi batez edertuko dute

Margoketa lanak egiteko bost egun beharko dituztela-eta, Durangoko Udala euri aterruneren baten zain dago



Frontoia hartu lezakeen itxura. Argazkikoa proposamena baino ez da.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak San Faustoko frontoiaren fatxada apaintzeko asmoa du. Horma irudi erraldoi bat egingo du bertan. Orokorrean, askotariko pintura lanak egingo dituzte, naturagaz loturiko irudia osatzeko. Lanak egin ahal izateko bost egun behintzat beharko dituztela-eta, udalak eguraldiak baimendutako aterruneren bati itxaron gura dio. "Oposizioan geundenean argi esan genuen eta gobernuan berriro diogu: Durangoko Udalak auzoen alde lan egingo du. Herriko hainbat gunetan egiten gabiltzan lanen bitartez, auzoak suspertu eta dinamizatu gura ditugu, eta, alde horretatik, auzoak kontuan hartuko dituen Durango bat lortzeko lan egingo dugu", azaldu dute Aritz Bravo eta Neskutz Rodríguez zinegotziek.

Horma irudia ez da udala San Fauston egiten dabilen lan bakarra. Auzo taberna berritzeko lanak amaitzeaz daude eta frontoian hainbat lan egingo dituzte.

Berbaro elkarteak Hirukoa gala egingo du zapatu honetan

Plateruenera doazenek azkarrena nor den erakutsi beharko dute, hiruko taldetan galderei erantzunda

DURANGO • E.H. / A.M.

Galdera-erantzunen ikuskizun antzeko, Berbarko euskara elkarteak gala propioa egingo du zapatu honetan, Plateruenera: Hirukoa gala. Bertan parte hartzen dutenek hiruko taldeak osatuta egingo diete aurre antolatzaileen

galdera eta probei. Hirukote irabazleak Errigorako otzara bat jasoko du.

Berbaro elkarteak Hirukoa egitasmoa martxan ipintzen duen bigarren aldia da. Iazko gala PPruet taldeak irabazi zuen. Zazpi hirukotek parte hartu zuten.



Iazko edizioko familia argazkia.

Burgosko Prozesuaren ondoren erbesteratuak izan ziren kideek Durangon egindako ekitaldi batean parte hartu zuten

Burgosko Prozesua hasi zela 50 urte betetzen diren honetan, 1977an Durangon antolatutako ekitaldiari buruzko datuak bildu ditu ANBOTOK



Erdian, Telesforo Monzon Burgosko Prozesuko kideak inguruan dituela Jesuitetan egindako ekitaldian, 1977ko uztailaren 21ean. AUNAMENDI ENTZIKLOPEDIA.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Burgosko Prozesua hasi zela mende erdi bete zen abenduaren 3an. Epaia abenduaren 28an etorri zen. Eduardo Uriarte, Jokin Gorostidi, Xabier Izko, Mario Onandia, Unai Dorronsoro eta Xabier Larena heriotza zigorrera kondenatu zituzten. Besteek espetxe zigor handiak jaso zituzten. Handik egun bira indultua etorri zen. Epaiketek iraun zuten bitartean herritarren protestak ugariak izan ziren. 50 urte geroago, auzipetuek aitortu dute egun haietako mobilizazioek "oxigenoa" eman zirela eta ezinbestekoak izan zirela indultua lortzeko.

Askatasunaren ibilaldian

Bada, erbesteratuak izan ziren Burgosko Prozesuko kideak Durangon antolatutako ekitaldi batean agertu ziren 1977an. Izan ere, urte hartako uztailaren 10etik abuztuaren 30era lau zutabek Euskal Herria zeharkatu zuten. Zarautzetik, Gernikatik, Agurainetik eta Lodosatik abiatu ziren lau zutabeak. Euskal Herriak ezagutu duen mobilizaziorik handienetarikoa izan zen. Guztira, 1.847 kilometro egin zituzten, 500 udalerritatik igarota. Lau zutabeak Nafarroako Arazuri herrian batu ziren. Ekitaldi hartan 200.000 lagunetik gora batu ziren.

Jaialdia Jesuitetan

Lodosatik abiatu zen laugarren zutabeak Durangaldean geldialdia egin zuen. Ekitaldi jendetsua antolatu gura zuten bertan. Hasieran, Abadiñoko probalekuan izango zela iragarri arren, azkenean Durangoko Jesuitetan antolatu zuten. Juan Mari Areitio bertsolariak Azpillagagaz batera abestu zuen taula gainean, besteak beste.

Sasoi hartan antolakuntzan ibilitako kide batek gogoratzen du Burgosko Prozesuko kideak zelan heldu ziren Durangora. "Ekitaldia amaitu aurretik kotxean sartu eta handik eraman gura genituen,

baina senitarteko eta lagunak zain zeuden eurekin egoteko. "Inguruko koei lasai egoteko esan zieten eta berehala eraman genituen handik", gogoratu du. Telesforo Monzon ekitaldiko gidaria izan zen eta eurekin zegoen.

Burgosko Prozesuko zigortuek Durangoko estazio zaharrean lo egin zuten, derrigortutako erbesteretik bueltatu eta publikoki agertu aurreko gauean. Enrique Urkijo sasoi hartan tren geltokiko arduradunaren semea zen. Markel Onaindia kazetariak Urkijori egindako elkarrizketa batean ordura arte ezezaguna zen pasarte esanguratsua

ratsu bat publiko ezin zen. Urkijok eta haren familiak bisita liburu berezi bat zeukaten euren etxe ere bazen estazioan, eta hantxe dago, beste zigortuenagaz batera, Telesforo Monzonek utzitako sinadura, historiara pasatuko dena. "Hemen gaur bildu garenok ez dugu sekula ere ahaztuko gaurko eguna. Agur berezi bat zuri, etxeko andre!", idatzi zuen Monzonek. Urkijoren amaren bazkaria dastatu ahal izan zuten zigortuek, lotarako lekua edukitzeaz gainera.

"Ekitaldian Jesuitak ikastetxea beteta zegoen eta ikurrina pila bat gogoratzen ditut"

Mobilizazio ugari

Marisa Barrenak eta Juan Antonio Aromak Durangoko ekitaldian parte hartu zuten. Segurtasuna bermatzeko giza katean jardun zuten. "Ekitaldian Jesuiten ikastetxea bete-beteta zegoen eta ikurrina pila bat gogoratzen ditut", dio Barrenak. Momentu historiko garrantzitsua izan zela nabarmendu du Barrenak. Tentsio handiko sasoiak izan zen. Alderdi bi legalizatu berri zeuden, errepresio handia... Telesforo Monzonen irudia oso inportantea izan zen zubi lana egiteko", gogoratu du Barrenak: "Burgosko Prozesua hasi zenean, 19 urte nituen eta militantziara egiten nuen lehenengo hurbilketa izan zen. Mugimenduetan sartzeko erabakiorra izan zen niretzat. Kaleko mobilizazioak, langile lez lehenengo grebak...".

Burgosko Prozesuak berak ere feminismoaren ikuspuntutik eragina izan zuen Barrenarengan: "Auzipetuetatik hiru emakumeak ziren. Feminismoa lantzen hasi nintzenean horrek ere bere eragina izan zuen".

**Estetika
gida**
anboto

**NUKLEO**
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO
Ile-apaindegia

**Ile-apaindegia**
**IUNIK**
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Zapatuan mobilizazioak egingo dituzte, AHTrako den dirua beharrian sozialetarako erabili dadin eskatzeko

Abenduaren 12ko zapatuan mobilizazioak egingo dituzte, Abadiñon Txanportan eta Atxondon herriko plazan, 12:00etan



AHTrik ez plataformak ekainean Abadiñon emandako prentsurrekoko argazkia.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain Ardura dinamikak deituta, abenduaren 12an, zapatua, mobilizazioa egingo dute Zelaietako Txanporta plazan, 12:00etan, AHTrako den dirua beharrian

sozialetarako izan dadin eskatzeko. "Elefante txuria azpiegitura ezbeharrezkoen eta ezdeusen nazioarteko ikurra da. Gure artean, AHTa da elefante txuririk handiena. Beraz, elkarretaratzeak egingo

ditugu elefante txuririk ez dugula behar adierazteko", azaldu dute antolatzaileek. Bestalde, hemendik aurrera, hileko hirugarren domekan elkarretaratzeak egingo dituzte Abadiñon, Txanporta plazan,

12:00etan, eta informazio postuak ere ipiniko dituzte.

Zapatuan Txanporta plazan egingo dutena ez da elkarretaratze bakarria izango. Atxondon ere kontzentrazioa deitu dute. Egun eta

ordu berean izango da, abenduaren 12an, 12:00etan, herriko plazan.

Horrez gainera, eskualdeko herritarrak informatuta izateko asmoz, AHTaren kontrako plataformak eskuorriak kaleratuko ditu hiru hilerik behin. Bertan, azken orduko berriak eta kaltetuen adierazpenak jasoko dituzte, besteak beste.

Hiru hilerik behin eskuorriak kaleratuko dituzte, herritarrak informatuta egon daitezten

Akta sinaketa, Elorrioren

Elorrioren abenduaren 1ean sinatu zituzten azken aktak. "Egun tristea izan da. Atsekabe handiz, lursailik lursail ibili naiz AHTko Elorrio-Elorrio tarteko azken aktak sinatzen. Txikizioa aspaldi hasi zen Elorrioren, baina esperantza galdu barik aritu gara, buru-belarri, eta gaurkoak azken akta sinaketak izan dira", adierazi zuen Idoia Buruaga alkateak sare sozialetan, aktak sinaturiko egunean. Bestalde, bizi garen egoera honetan gobernuak dirua "beharrezko gauzetara" bideratuko zutela uste zuela azaldu zuen alkateak. "Besteak beste, tristura, amorrua eta inpotentzia sentitzen ditut une honetan", amaitu zuen Buruagak.

Abenduaren 31ra arte luzatu dute aurrekontu parte hartzaileetarako epea

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Udalak abenduaren 31ra arte luzatu du aurrekontu parte hartzaileetan proposamenak bidaltzeko epea. Urtarrilaren 1etik 10era bitartean, jasotako proposamenak aztertuko dituzte eta mahai teknikoaren irizpidea betetzen dutenak aukeratu dituzte urtarrilaren 11n egingo duten batzarrean. Aurrekontu parte hartzaileetarako esleitutako diru kopurua 15.000 eurokoa da. Udalak azaroaren 1ean zabaldu zuen proposamenak bidaltzeko epea.



Zaldibarko kaleak.

Zaldibarko Berbalagunek ekintzak antolatu ditu

Guztira, hamabi lagunek eman dute izena Zaldibarko Berbalagunean; ekitaldi bi antolatu dituzte datorren asterako

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Berbalagun egitas-moko kideak pozik agertu dira aurtengo kanpainak izandako harrreragaz. Hamabi lagunek eman dute izena egitasmoan, eta astean ordubete euskaraz egitea da euren helburua. Horrez gainera, ekintza osagarri bi antolatu dituzte datorren asterako. Abenduaren 16an, eguaztena, 19:00etan, helduentzat bakarrik egingo du-

te; 17an, familientzat mahai-joko tailerra egingo da. Biak liburutegi zaharrean egingo dira.

'Hitanolaguna' lurretan

Lurretako Berbalagunek hitano ikastaroa antolatu dute, "hitanoa erroturik egon arren urteetan izandako beherakadari buelta emateko", diotenez. Izena emateko 639 400 786 telefono zenbakira deitu behar da.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko abenduaren 11
19. urtea - 832. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

"Gure dendetan erosten duten bezeroei erosketaren %10eko balioa duen bonua ematen diegu taberna batean kontsumitzeko"

Zornotzako Lola, Don eta Frida arropa-dendek euren irabazien %10agaz lagunduko diote Saltxa tabernari

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Roberto Extremiana (Zornotza, 1959) eta Lola Del Moral (Zornotza, 1973) Zornotzako arropa saltzaileetarikoa bi dira. Azken asteotan, euren irabazien %10 eskainita laguntzen dabilta Saltxa tabernari. Extremianak erantzun die ANBOTOren galderei.

Dendako irabazien %10 herriko taberna bati laguntzera bideratzen ari zarete. Nondik dator ideia?

Zelanbait, herritarrek eman diguten guztia eskertzeko modu bat da egitasmo hau. Konfinamendutik irten genuenean, Zornotzako herritarrek primerako erantzuna eman zuten. Egoerak komertzio txikiok kolpatu gaitu, baina herritarrek asko lagundu digute. Horregaitik, haiei eskerrak emateko modu bat da hau. Azaro bueltan, ostalaritza zarratuko ote zuten zurrumurrua zabaldu zenean, egitasmo hau egitea pentsatu genuen euren laguntzeko. Salgaiei deskontu bat aplikatzea pentsatu

genuen, diru hori, gerora, taberna bati bideratzeko.

Zelakoa da egitasmoaren mekanika?

Txartel batzuk kaleratu ditugu. Gure arropa-dendetan erosketaren bat egiten duten bezeroei erosketaren %10eko balioa duen bonu bat ematen diegu, txartel hori tabernan kontsumitzeko baliatu dezaten. Demagun bezero batek 20 euroko erosketa bat egiten duela gure dendetako batean. Bada, euro biko bonu bat emango genioke, hartara tabernan euro biko deskontua jaso dezan. Zornotzako hainbat tabernatako bezeroak gara, baina uneotan zerbitzua batek bakarrik eskaini izan duela-eta, eurekin ari gara elkarlanean: Saltxa tabernagaz. Proposamena bota genien eta onartu zuten. Ez gaude beste tabernetara zarratuta, baina eurekin hasi gara.

Zer-nolako harrera izaten ari da egitasmoa bezeroen artean?

Orokorrean oso ona. Elkarlana gorai patzen dute. Bestalde, ikusi dut udalak komertzioei laguntzeko bo-



Lola Del Moral eta Roberto Extremiana dendariak.

"Ideia ona delakoan nago, barne kontsumoa indartzen gabilta-eta, herri barrukoa"

rondatea duela. Amorebonoak hor daude. Laguntzen ari dira, eta hori eskertzekoa da.

Komertzio txiki guztien artera estrapolatzeko moduko ideia dela iruditzen zaizue?

Bai. Ideia ona delakoan nago. Barne kontsumoa indartzen ari gara,

herri barrukoa. Eta ez elkartasun hutsagaitik, sen onagaitik baino. Herrian gaude eta elkarri lagundu behar diogu. Lehiakorrak izan behar dugu Internetegaz. Erosketak egitera bultzatu behar ditugu herritarrek, etxetik kalera irten dezaten.

Marisa Barrenak irabazi du euskarazko Wikipedian emakumeen presentzia handiagotzeko lehiaketa

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Euskarazko Wikipediak Marisa Barrena euskal maistra, psikopedagogo, euskaltzale eta feminista saritu du, bertan emakumeen presentzia handiagotzeko egindako lanagaitik. Aurten, Euskarazko Wikipediak lau lehiaketa ipini ditu martxan bere edukiak hobetzeko. Horietariko bat emakumeen biografiak lantzeari lotutakoa da, eta, hain zuzen ere, sari horixe eman diote Barrenari. "Ez dut jakin saririk zegoenik ere. Oso gustura egiten dudana lana delako nabil horretan", azaldu du Barrenak.



Marisa Barrena. ARTXIBOA.

Abenduaren 15ean amaituko da Amorebonoak eskuratzeko epea

Udalak 285.000 euro ipini zituen kanpainarako. Bonuek 902.840 euroko eragin ekonomikoa sortu dute herrian

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Amorebonoen kanpaina azken txanpan sartu da. Zornotzako Udalak jakinarazi duenez, hilaren 15ean amaituko da herrian tokiko kontsumoa bultzatzeko "inoiz egin den" egitasmorik handiena. Udalak ekainean ekin zion Amorebonoen kanpainari. 57.000 bonu ipini zituen salgai, eta horietatik 45.142 baino gehiago saldu dituzte gaur arte. Beraz, 11.858 bonu

baino ez dira geratzen. Udalaren esanetan, "aurrekaririk bako" kanpaina da. Udalak 285.000 euro ipini zituen, eta horrek herrian gaur arte eragin duen inpaktu ekonomikoa 902.840 eurokoa da. Iraunkor eta Dendariak elkarrekin ere egitasmoan parte hartzen dute.

Zornotzarrek Herritarren Arretarako Zerbitzura jo beharko dute bonuak eskuratzeko.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Hirubiden biribilgunea egitea eta igerilekuak konpontzea Atxondoko 2021eko proiektu nagusiak

Atxondoko Udalak 2.641.965 euroko aurrekontua izango du datorren urtean, iazko aurrekontua baino %48 gehiago



Hirubideko bidegurutzean biribilgunea egingo dute.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz onartu zituzten 2021eko udal aurrekontuak joan zen astean. Atxondok 2.641.965 euroko aurrekontua izango du dato-

rren urtean, iaz baino %48 gehiago. "Pertsonen zuzendutako aurrekontuak dira. Gobernu taldetik argi daukagu une honetan gure helburu nagusiak atxondarrak direla", aitortu zuen Xabier Azkarate alkateak.

Inbertsioetan diru atalik handiena Hirubideko biribilgunea egin eta zeharbide berria egiteko lanek izango dute, 791.843 euro. Bestalde, besteak beste, 80.000 euro erabiliko dituzte igerilekuen instalazioak

hobetzeko, 50.000 euro liburutegi ondoan Pump Truck parkea sortzeko eta 40.000 euro Barraskiko urbanizazioa egokitzeko. "Azken urteetan igerilekuetako instalazioak txarto ustiatu eta mantendu

direnez, 80.000 euroko partida zuzendu beharko da. Horrez gainera, EH Bilduk agintzen zuen sasoian sinatutako hitzarmen baten ondorioz orain Barraskiko urbanizazioan 40.000 euroko inbertsioa egin behar dugu", azpimarratu zuen ohar baten bitartez alkateak.

EH Bilduren abstentzioa

Atxondoko EH Bilduko kideak abstenitu egin ziren aurrekontuetan. "Edukiei dagokienez, ez dugu kexarik. Baina ez gaude ados

EH Bilduko kideek esan dute "transparentzia falta" ikusten dutela aurrekontuetan

prozesu parte hartzaileagaz", esan zuen Ane Intxaustik. Abuztuan eta irailean gobernu taldeak postontzi bat ipini zuen herritarren ekarpenak jasotzeko. "Ez dakigu buzoian zer sartu den eta herritarrek ere ezin izan dituzte proposamen horiek aukeratu. Gure ustez, herriko taldeekin batu beharko litzateke eta auzotara joan eta zer premia duten galdetu", esan zuen Jorge Jauregik. "Transparentzia falta" ikusten dutela adierazi dute talde subiranistako kideek.

Elorrion otzara bat zozkatuko dute haur minbiziaren aurkako borrokarako dirua biltzeko

Alakranes del Norte elkarteak otzara bat zozkatuko du urtarrilaren 6an. Errifekin batutako dirua Aspanovas elkarteari emango diote, haur minbiziaren aurkako borrokarako

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken urte hauetan, Durangaldeko Alakranes del Norte elkarteak buru-belarri murgilduta dabil umeen minbiziaren aurkako borrokan. Horretarako, haurren minbiziaren aurkako elkartasun maratoiak antolatu izan dituzte eskualdean. Aurten, oster, Alakranes del Norte elkarteak

kideak zozketa berezi batez datoz. Eskualdeko hainbat taldek zein herritarrek emandako produktuekin otzara bat osatu dute. "Berbarik barik gaude, izugarria da zelako esker ona jaso dugun otzara osatzerako orduan", adierazi dute elkarteak kideek.

Otzara solidarioaren zozketa urtarrilaren 6an egingo dute.

Oraindino ere errifak erosi gura dituztenek badute aukera horretarako. Elorrioko ondorengo denda hauetan eskuratu daitezke: Ditare mertzerian, Matxorri okindegian eta Duñabeitia tabako-dendan. Horrez gainera, Alakranes del Norte elkarteagaz hartu-emanetan ipinita ere eskuratu daitezke otzara berezi honetarako errifak.



Alakranes del Norte elkarteak kideak errifak saltzen egon dira herriko plazan.



Erreka kaleko irudia.

Laguntzak autonomo eta mikroenpresentzat Elorrion

Elorrioko Udalak 100.000 euroko diru partida erabiliko du herriko autonomoei eta mikroenpresei laguntzeko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

COVID-19aren ondorioz sortutako osasun krisiak autonomoei eta mikroenpresei eragindako ondorio kaltegarriak arintzen laguntzeko asmoz, Elorrioko Udalak 100.000 euroko partida ekonomikoa martxan ipini du. "Laguntza ekonomiko hauen bitartez, kalte

larria jasan duen tokiko jarduera ekonomikoa babestu, sustatu eta bultzatu gura dugu", adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Lehenengo banaketa eginda, oinarrietan ezarritako moduan, kreditua amaitzen ez bada soberakina onuradun guztien artean banatuko dutela esan dute udaletik.



Gremioen gida

anboto

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza



UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza



Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubiagune, 8 IURRETA
946 202 768
Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO
946 071 791 - 692 859 779

Zurgintza



ATERPE AROZTEK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

 **Profesionalik onenak zure zerbitzura!**





Monalisa Silva
Brasil | 1983

Farkhan Mohammad
Punjab | 1993
Euskara ikasten dabiltza

“Euskaraz bizi gura dugu eta Otxandion posible da hori, kalean euskaraz entzuten dugulako jendea”

Monalisa Silva eta Farkhan Mohammad etorkinentzako AISA euskara ikastaroetako ikasle bi dira Otxandion. Klaseak ez dira euren iturri bakarra euskara hobetzeko. Seme biak beti euskaraz ari zaizkio Silviri. Mohammad-ek lagunekin praktikatzen du eta kalean honako hau da bere galderarik gustukoena: "Zelan esaten da berba hau euskaraz?".

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Noiztik bizi zarete Otxandion?

Monalisa Silva: Urte bi daramatzat Otxandion. Aurretik, Gasteizen egon nintzen, 14 urtez.

Farkhan Mohammad: Ni orain urtebete eta hiru hilabete etorri nintzen Otxandiora. 13-14 urte nituela irten nintzen sorterritik, Punjab-etik. Gero, Europako toki askotan bizi izan naiz: bost urte Grezian, hiru Italian, bi Frantzian... Alemanian ere egon naiz. Baina Otxandion bezain gustura ez naiz inon egon.

Zenbat denbora daramazue euskara ikasten?
M.S.: Nire senarrak eta biok hilabete inguru daramagu Otxandioko AISA ikastaroetan eskolak hartzen.

Lehenengoz ari gara euskara ikasten.

F.M.: Urte hasieran hasi nintzen euskara ikasten, baina egun gutxi izan ziren, pandemia heldu zen eta. Orain berriro hasi naiz.

Zergaitik hasi zineten?

M.S.: Senarrak eta biok aspalditik ikasi gura genuen, Gasteizen bizi

“

Monalisa Silva: "Seme biak beti euskaraz berbetan ari zaizkit: 'Ikasi dezazun, ama', esaten didate"

—

ginenean ere bai, baina Otxandiora heldu arte ez dugu aukerarik izan. Neurri batean, horregaitik aukeratu genuen Otxandiora etortzea, eta baita seme biengaitik ere. Izan ere, semeek [6 eta 12 urtekoak] euskaraz ikasten zuten Gasteizen, baina gero kalean ez zuten euskara erabiltzeko hain aukera handirik. Hemen, oster, euskaraz bizitzeko aukera dute. Gainera, Otxandio herri lasaia da.

F.M.: Punjab eta Euskal Herria berdinak garela uste dut. Horregaitik erabaki nuen euskara ikastea. Biok ditugu kultura eta hizkuntza propio bat, estatu barik. Ni hezi nintzen tokian, [Pakistan aldeko Punjab zonaldean] jendeak urdua edo beste hizkuntza bat erabiltzen du normalean, hemen gaztelaniagaz gertatzen den moduan, baina nire ama hizkuntza punjabi-a da eta nik nire hizkuntza erabiltzen nuen beti. Otxandion ere berdina gertatzen da. Jendea euskaraz berbetan entzuten dut. Horregaitik gustatzen zait hainbeste hemen bizitzea. Euskaraz bizitzea hemengo kultura eta nortasuna mantentzeko modua da. Nik euskaraz bizi gura dut eta Otxandion posible da hori, kalean euskaraz entzuten delako jendea.

M.L.: Egia da. Kalean euskara entzuten da. Niri ere euskaraz bizitzea gustatuko litzaidake maila hobetzen dudanean.

F.M.: Gainera, denboragaz konturatu naiz berba batzuk berdinak edo oso antzekoak direla punjabiz eta

euskaraz. Esaterako, 'ama'. Lehenengoz 'ama' berba entzun eta bere esangura esan zidatenean harrিতa geratu nintzen. Adibide gehiago ere badaude.

Tabernetan, dendetan... egunerokotasunean euskaraz komunikatzen ahalegintzen zarete?

M.L.: Bai, saiatzen naiz. Nik Lora tabernako sukaldean lan egiten dut, beste batzuekin. Batzuetan euren artean euskaraz hasten dira eta nik askorik ulertuko ez dudala konturatzean "barkatu" esaten didate, baina niri ez dit ardura. "Jarraitu euskaraz" esaten diet. Horrela, ulermena hobetu dezaket. Orainxe hasi naiz klaseetara joaten, baina Otxandion bizitzen daramadan sasoian apurka ikasten joan naiz; kalean, han eta hemen, entzundako berba solteekin edo semeek irakatsitakoagaz. Semeak beti euskaraz ari zaizkit: "Ikasi dezazun, ama", esaten didate. Batzuetan, testuinguruaren arabera eta berba batzuk ulertuta, asmatu daiteke solasaldiaren gaia. Gainera, euskara, hizkuntza bera, entzutea gustatu egiten zait.

“

Farkhan Mohammad: "Punjab eta Euskal Herria berdinak dira. Horregaitik erabaki nuen euskara ikastea"

—

F.M.: Ni euskaldun batez bizi naiz, bere etxean hartu ninduen. Beragaz euskaraz egiten dut beti. Horrek asko laguntzen du. Kalean ere nire lehenengo berba euskaraz da. Nire agurrak beti dira 'egun on' edo 'arratsalde on'.

Euskara ikasteko hizkuntza gatxa dela entzun ohi da. Horrela da?

M.L.: Hasieran baietz uste nuen. Jende batek esan zidan gatxa zela. Orain, klase batzuen ostean, ez daukat irudipen hori.

F.M.: Orain bi-hiru hilabete laguneri esan nien: "Euskara ikasten hasiko naiz". Eta esan zidaten: "Animo, zer zaila den...". Orain, eurekin ari naizenean harrিতa geratzen dira aurreratu dudana-gaz.

M.S.: Hau beti dabil euskaraz! Ikusten dudak tokian ikusten dudala, euskaraz ibiltzen da. Eta asko galdetzen du.

M.S.: (Barrez) Bai, horrela da. Beti saiatzen naiz. "Zelan esaten da berba hau euskaraz? Eta beste hori?", galdetzen dut.

Beste batzuei euskara ikasten has-tea gomendatuko zeniekete?

M.L.: Beste herri batzuetako klaseen berri ez dakit, baina nik oso ondo pasatzen dut guretan. Ikasten dugu eta, gainera, dibertigarriak dira. Askok eskertzen dut irakasleak gugaz duen pazientzia.

F.M.: Joseba deitzen da eta oso jatorra da. Gauza bera hamar bider galdetuta ere, lehenengo aldian moduan erantzungo dizu.



**Azkeneko
aukerak**

IURRETA *Tellitu-n*

*3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne*

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Hezkuntza Sailaren "utzikeria" salatu eta Haurreskolak Partzuergoko aurrekontua handitzeko eskatu dute sindikatuek

ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek deitutako lehenengo greba eguna izan zen atzokoa; bigarrena abenduaren 16rako dago aurreikusita

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Haurreskolak Partzuergoko haurreskoletan lan baldintza seguruak bermatzeko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzeko neurriak proposatu dituzte ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek, baina neurriok "aintzat hartu ez direnez", hiru sindikatuek grebaren bidea hartu dute. Greba egun bietako lehenengoa atzokoa izan zen eta bigarrena abenduaren 16rako dago aurreikusita. Greba egunaren harira, herri askotan kontzentrazioak egin zituzten. Durangon, Andra Mariko elizpean batu ziren.

Hiru sindikatuen esanetan, Haurreskolak Partzuergoko hitzarmenak "ez dira betetzen ari", eta, ondorioz, haur hezitzaileen eta kudeaketako langileen lan baldintzak "okertu" eta zerbitzuaren kalitatea "kolokan" ipini dira, komunikatu bateratu batean salatu dutenez.

Gainera, Haurreskolak Partzuergoaren "erabateko doako-

tasuna" eta "sarbide unibertsala" bermatzea eskatzen dute, baita Partzuergoa Jaurilaritzako Hezkuntza Sailean integratzea ere.

Partzuergoaren "erabateko doakotasuna" eta "sarbide unibertsala" aldarrikatu dituzte

Negoiazio mahaia

Joan zen asteko egunean, Haurreskolak Partzuergoko gerenteak mahai negoziatzailearen bilera batera deitu zituen sindikatuak, baina bilera ez zen espero zuten bidetik joan. Alde batetik, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak "ez zela agertu" salatu dute komunikatuan. Ildo horretatik, Hezkuntza Sailaren "utzikeria" salatu dute.

Horrez gainera, ez daude ados Partzuergoko gerenteak hurrengo ikasturterako ordezkapenen inguruan mahai gainean ipinitako



Atzo Andra Mariko elizpean egindako kontzentrazioko irudia.

proposamenagaz. "Akordioak ez betetzeko proposamena" zela esan dute.

Lan hitzarmen berria adosteko, "akordioetatik abiatutako negoziazioa" aldarrikatu dute

ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek "akordioetatik abiatutako negoziazioa" aldarrikatu dute lan hitzarmen berria adosteko, "irakaskuntzako kolektibo guztietan Hezkuntza Saila egiten dabilen moduan; gurean oraindino mugatuta daude aurrekontuak".

Bildarratzen "erantzukizuna"

Hiru sindikatuen ustez, "ezinbestekoa" da Haurreskola Partzuergoaren aurrekontua "handitzea". Eskumen hori Hezkuntza Sailarena da eta, horregaitik, "erantzukizuna betetzea" eskatu diote Jokin Bildarratz sailburuari.

Aurrekontuetan azpiegiturarako zen dirua unean uneko beharrian erabiltzeko gorde dute Izurtzan

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen barikuko udalbatzarrean, 2021era begirako aurrekontuak onartu zituzten Izurtzan. Aho batez atera zituzten aurrera, Gobernu Taldeko EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin. 602.059 eurotan parekatu dituzte kontuak.

Inbertsioen ataleko zenbatekoa 131.520 euro dira. 9.000 eurogaz, Interneteko konexioagaz herrian dauden arazoak konpontzen ahaleginduko dira. Inbertsioen ataleko 109.720 euro azpiegiturarako dira. Ikusita gaur egun bizi dugun egoera zein den eta segurtasunik ez dagoenez hurrengo urtea zelan garatuko den, ez dute zenbateko hori proiektu zehatzetan banatu. Dirua eskuragarri izan gura dute unean unean sortu ahal diren beharriari erantzun ahal izateko.

Gizarte zerbitzuetako diru atala %6 igoko dute Mallabian 2021eko aurrekontuetan

Berdintasunaren alorreko atala %50 igoko dute



Gizarte Zerbitzuek 150.000 euroko diru atala izango dute.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Gobernu Taldearen (EAJ) aldeko botoekin 2021eko aurrekontuak onartu dituzte Mallabian. EH-Bildu abstenitu egin da. 2021eko sarrera eta gastuak 2.010.300 eurotan parekatu dituzte. Ongizate zerbitzuari dagokion diru atala %6 igotzea erabaki dute; 150.000

eurokoa izango da 2021ean. Bestalde, sail horren barruan, Berdintasun alorreko partida %50 igoko dute: 6.000 euritik 9.000 eurora.

Azpiegiturarako inbertsioen atalean hainbat proiektu sartu dute. Esaterako, 10.000 euroko inbertsioa egingo dute herriko

baranda zaharrak kendu eta altzairu herdoilgaitzezko berriak ipintzeko. Eskalada praktikatzeko boulderra ere egin gura dute kultur etxeko gela batean, 23.000 euroekin.

Diru atal bi auzoen hobekuntzara bideratutakoak dira: 18.000 euro eguzki indar bidezko kaleargiak ipintzeko, eta 15.000 euro auzo bideetan bazter-babesak egokitzeko.

Datorren urtera begira enplegu plan propio bat garatu gura du udalak eta horretarako 24.000 euro gorde dituzte. Bestalde, 16.000 euro bideratu dituzte merkataritza sustatzera. Beste asmoetariko bat familia-hezitzaile bat kontratatzea da, beharrian duten familiei laguntza emateko.

"Aurrekontu sozialak dira", azaldu du Igor Agirre alkateak. Gainera, "ez dugu proiektu handirik aurreikusten, dirua eskuragarri gura dugu sortu daitezkeen beharriari erantzuteko".

EHBilduk abstenitzea erabaki du. Ez dute kontra bozkatu arrazoi honengatik: "Aurten aurreko urteetan baino hartueman handiagoa izan dugu eta gure hainbat proposamen onartu dira, batez ere ongizate sailean eta kultur arloan", azaldu du Aitor Loiola zinegotziak. Ez dute baiezkora bozkatu honakoagatik: "Hirigintza arloan

Umeei begirako ikuskizun bi antolatu dituzte Mañarian Gabonen harira

MAÑARIA • J.D.

Urte zaharra amaitu eta berria hasteko, Mañariko Udalak umeei begirako ikuskizun bi antolatuko ditu pilotalekuan. Lehenengoa abenduaren 26an izango da, 17:30ean. Bertan, Paraiso Antzerkia konpainiak *Lunatikus Cirkus* izeneko antzez-lana eskainiko du. Ikuskizun-

Paraiso Antzerkiak 'Lunatikus Cirkus' ikuskizuna eskainiko du abenduaren 26an

nak lanik, janaririk eta etxerik barik dauden hiru lagunentzako abenturak kontatzen ditu. Antzez-lana ikusteko, abenduaren 17aren aurretik eman behar da izena, udaletxean. Bigarren ikuskizuna, *Nomadak* izeneko konpainia berarena da, eta urtarilaren 2an izango da, 17:30ean. Abenduaren 23a baino lehenago eman behar da izena, udaletxean.

Hiru garagardo ekoizlek egindako sei zerbeza eta DJ saio bat lurretako garagardo azokaren laugarren edizioan

Zapatuan egingo dute jada urteroko ohitura bihurtu den lurretako garagardo azoka. Kanean antolatzea ezinezkoa dela-eta, laugarren edizio hau Internet bidez egingo dute. Garai Brewing Company, Laugar eta Saltus Brewing Koop. ekoizleek parte hartuko dute. 60 bat lagunek eman dute izena dastaketarako



lurretako garagardo azoka orain urte bi. GARAI BREWING COMPANY.

IURRETA • GARAI • EKAITZ HERRERA

Zapatuan lurretako garagardo azokaren laugarren edizioa egingo dute. Jada ohikoak diren osasun kontuengaitik ezin izango dute kanean, betiko moduan, egin, baina antolatzaileek dena prest dute etxetik bada ere jaialdia ahalik eta gehien zukutzeko.

Garagardo dastaketa izango da azokaren muina, eta Interneteko plataformek eskaintzen duten tresneria baliatuta egingo dute. Aurten hiru garagardogileren zerbezak dastatuko dituzte: Garai Brewing

Company, Laugar eta Saltus Brewing Koop etxeenak. "Dastaketan parte hartzen duten herritarrek 9 garagardoko kaxa bana jasoko dute. Horietariko 6 dastatuko dituzte, garagardo etxe bakoitzeko bi. Ekoizle bakoitzak bere zerbezari buruzko azalpenak emango ditu eta interbentzio batetik besterako tartean DJ saioak egongo dira", azaldu du Ibon Berriozabalgoitiak (Garai, 1985). Garagardo azokako antolatzaileetarikoa bat izateaz gainera, Garai Brewing Company etxearen kideetarikoa bat da bera. "Asmoa zerbait

dinamikoa egitea da, interakzioak sortzea. Garagardogileei galderak egin ahaliko zaizkie eta eurek ere egingo dizkiete galderak dastatzai-

Garagardo bakoitzagaz zer jan daitekeen proposatuko dute ekoizleek

leei", esan du. Laugar etxeak orain gutxi kaleratutako zerbeza bat aurkeztuko du. *Kide* izeneko. Bestetik,

Saltus etxeak, labetik atera berria den zerbeza aurkeztuko du, primizian: *Baldarra* izeneko garagardoa, IPA bikoitzekoa. Azkenik, Garaiko garagardo ekoizleek Berliner weisse eta IPA zerbeza motak aurkeztuko dituzte dastaketara.

Bertan parte hartuko duten herritarrek garagardo kaxak jasotzen aritu dira eguen eta gaur artean. Gutxi gorabehera 60 bat izan dira dastaketan izena eman dutenak.

Jatekoa zelan konbinatu

Garagardoa artisaua bada, hobeto.

Eta garagardo artisaua jatekoagaz lagunduta badago, askoz hobeto. Horregaitik, zerbeza bakoitzagaz zer jan daitekeen proposatuko diete ekoizleek dastatzaileei. "Sei zerbeza bere horretan bakarrik hartzea baina, hobe da beste zeozergaz laguntzea. Horregaitik, zerbeza bakoitza zein jatekogaz konbinatu daitekeen proposatuko dugu", azaldu du Berriozabalgoitiak. "Dastaketa zuk bakarrik egin beharrean pisukideagaz, bikotekideagaz, aitagaz edo amagaz ere egin dezakezu horrela", azaldu du.

Berrizko Udalak Mankomunitatean sartzeko eskaria egingo du, 22 urtean bertatik kanpora egon eta gero

EH Bildu eta Podemoseko zinegotziek Mankomunitatean sartzearen kontra bozkatu dute eta PSE-EE abstenitu egin da

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

22 urteren ostean, Berrizko Udalak Durangaldeko Mankomunitatean sartzeko eskaria egingo du. "2012an zerbitzu batzuetara atxikitu ostean, apustu sendo batez gero, behin betiko Mankomunitatean kide oso moduan atxikitzea eskatuko dugu eta. Gure ustez, Berrizko herriaren garapena ezin da ulertu gainerako udalekin ibilita ez bada", adierazi zuen Orland Isoird alkateak.

Alkateak bilkuran azaldu zenez, Berrizek hiru ordezkariagaz parte hartuko du Mankomunitatean, eta, besteak beste, gizarte zerbitzuetara atxikituko da. "Badakigu gizarte zerbitzuen eredia desberdina dela. Eta herritarrek desberdintasunak ahalik eta gu-

txien igartzeko ahalegina egingo dugu. Zerbitzu batzuetan aldea egongo da, baina orokorrean Berriz ondo aterako da", jarraitu zuen alkateak. Bestalde, zerbitzu ba-

EAJren aldeko botoekin, Berrizko Udalak Mankomunitatera bueltatzea erabaki du

tzuk udalean geratuko direla esan zuen alkateak, tartean zaborraren zerbitzua.

EH Bilduko eta Podemoseko zinegotziek Mankomunitatean sartzearen kontra bozkatu zuten, eta prozesua gelditzeko eta gaia ondo

aztertze eskatu zioten talde bietako zinegotziek gobernu taldeari. Horrez gainera, EAJk egin duena "inposaketa bat" dela esan zuten. "Ez gaude batere ados zelan hasi eta bideratu duzuen prozesu hau. Azaroaren 17an Mankomunitateko kide batzuek esan ziguten Berrizek Mankomunitatean sartu gura duela. Kanpotik jakin genuen zuen erabakiaren berri. Gu ez gaude Mankomunitatean sartzearen kontra. Baina bai horrela egitearen kontra, hamabost egunean eta datuak ikusi barik, inongo txostenik barik", salatu zuen Karmen Amezua EH Bilduko kideak. Talde subiranistako kideek kritikatu zuten Mankomunitatean sartzeari erabaki politikoa bat dela, ez erabaki tekniko bat,

eta herritarrek honegaz ez dutela irabazten. "Ongizate zerbitzua beti harrotasunez erabili duzue. Eta orain prest zaudete hori galtzeko? Hemen ikusten da EAJren aukera zerbitzuak pribatizatu eta kanpora ateratzea dela", jarraitu zuen Amezuak.

Bestalde, David Jimeno Podemoseko zinegotziak esan du gobernu taldeagaz alderatuta politika egiteko modu desberdina dutela: "Politika ulertzeko oso modu diferentea daukagu. Guk ez dugu politika horrelako autoritateagaz ulertzen."

Carmen Marco PSE-EEko zinegotziak ere informazio falta salatu zuen, eta udal langileek horrelako gai baten berri prentsaren bitartez izatea kritikatu zuen.

Berrizko Umerri eskola aktiboak 2021eko egutegia kaleratu du

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Umerri eskola aktiboak 2021eko egutegia kaleratu berri du. Umerritik azaldu dutenez, egutegi berezia da, bertako natur ondarea eta ahozko ondarea jasotzen ditu eta. "Egutegi honetan, galtzen dabilzan ondare bi horiek batu gura izan ditugu, formatu erraz batean jasota etxetara eramateko", esan dute Berrizko Umerri eskola aktiboko kideek.

Egutegia honako saltokietan egongo da eskuragai: Berrizko estankotan, Abdulen fruta-dendan, Keinu optometria zentroan, Durangoko Arteka liburu-dendan eta Marisatsa dendan, Eloorrioko Anbotopeko dendan, Atxondoko Amillena Bentan eta Zaldibarko Sorgin tabernan.



GEREDIAGA ELKARTEA.

Hareek denporak!

1965. URTEKO DURANGOKO AZOKA ANDRA MARIAN

Durangoko lehenengo Euskal Liburu eta Disko Azoka 1965ean egin zen, Andra Mariko elizpean. Ordukoa da argazkiko irudia. Abenduan ez ezik, azaroaren 1ean ere egin zuten, Domu Santu egunez.

Azokaren historia gogoratuz, Gerediaga Elkarateak azaldu du elizpean merkatua izaten zela zapatu goizetan. Beraz, lehenengo urte haretan ere ohiko merkatua egon zen goizean. Eta arratsalderako, bizpahiru orduko lanaren ondoren, prest zegoen liburuaren eta diskoen azoka. Lehenengo Liburu eta

Disko Azoka harek 19 erakusle eduki zituen.

1974. urtera arte, Azoka Andra Mariko elizpean egin zen urterik urte. "Aurreko edizioetako azokak hartutako oihartzuna ez zen sasoiko gobernadore zibilaren gustukoa. Aitzakia bila, erlijio arrazoiak aipatu eta Andra Mariko elizpean egitea galazo zuen. Merkatu plazan egitea izan zen irtenbidea", azaldu du Gerediagak.

Liburu eta diskoek harago, Durango euskal kultur eragilearen topagune bihurtu da apurka-apurka.

Iritzia

TXIRRINDULARIAK

Korrikalariak, Txirrindulariak eta Mendizaleak
Badago mendizaleon artean idatzi gabeko "lege" bat: bidean lehenasuna ematea gorantza doanari.

Ohitura zahar eta jator hau gero eta gutxiago betetzen da, batez ere korrikalari edo txirrindulariekin topo egiterakoan.

Ez dira geratzen beherantza doazenean eta, gainera, arinago igarotzen dira horrek duen arriskuarekin.

Badakit ohiturak aldatzen direla, baina pena da mendizaleok lekua galtzea mendian.

Saiatzen naiz "lege" jator hura betetzen.

Benja Legarra Urkiola


Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Durungaldea asteen

Zaldibarko Udalak LED argiak ipini ditu Solobarria futbol zelaian

Zaldibar I Energia kontsumoa murrizteko, Zaldibarko Udalak bigarren faseari ekin dio Solobarriako futbol zelaian LED argiak ipinita. Horrela, Zaldia Futbol Klubak zelaiko argiak hobetzeko egingako eskaerari erantzun diote. Iazko abenduan 5 LED pantaila ipini zituzten 10.478 euroko inbertsioa eginda, eta oraingoan 12 pantaila gehiago ipini dituzte. 18.077 euro gastatu dituzte horretarako. Datorren urtean egingo den hirugarren fase batean, gainerako 7 LED pantailak ipiniko dituzte.



Ur-hornikuntza berritzeko lanak amaitu dituzte Ergoien

Zornotza I Zornotzako Udalak edukiera handiagoa eta efizientzia gehiago duen depositu bat ipini du Ergoien San Juan auzoan. Bestalde, banaketa sarearen zati handi bat berritu dute. Hoditeria, kutxatila, bentosak eta hustubideak aldatu dituzte, besteak beste. Lanek 130.000 euroko aurrekontua izan dute.

Familientzako ikastaroetan eta hitzaldietan izena eman daiteke

Durungaldea I Mankomunitateko Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak gai hauek jorratuko ditu, besteak beste, Familientzako Eskoletan: lotura afektiboak sustatzea, oreka emozionalaren eta sozialaren garrantzia, tentsioak konpontzea eta prebentzioa haurtzaroan eta nerabeztaroen. Izena emateko epea abenduaren 30era arte egongo da zabalik. 94 620 05 20 telefono zenbakira deitu edo prevencion.mdurango@bizkaia.org helbidera idatzi daiteke.

MARTXAN JARRAITZEN DUGU, ZURETZAKO LAN EGITEN... ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO, ZURE ZAIN GAUDE!

ZABALIK GAUDE!

Kurutziaga, 40 (Durango) - 946 200 427 - 688 773 205 - saltsan@saltsan.com

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com


**Talleres
Serafín**
S.Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807



TOPATU ITZATZU

Topatu hamar objektu hauek beheko irudian.





DIFERENTZIAK

Topatu hamar diferentziak.





DIFERENTZIAK

Topatu irudi bi hauen artean hamar diferentziak.





ZER JANTZI?

Alboko arropa hauetatik guztietatik
zer ez zenuke jantziko elurretan
jolasteko?





ZER ALDATU DA? _____





ZEINTZUK BAI?


Alboko objektuetatik zeintzuk
erabiltzen zituen antzina
kobazuloetan bizi zen jendeak?

Islan gauza batzuk aldatu egin dira. Gai zara denak topatzeko?




LOTU ITZAZU

Lotu ezazu dinosauro bakoitza bere kumetxoagaz.



LABIRINTOA



ZENBAT DAKIZU?

Zenbat urtean bizi izan ziren dinosauroak Lurrean?

- a-) 20 urtean
- b-) 160tik 180 milioi urtera bitartean
- c-) 10.000 urtean

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2021

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite
	Abadiñoko estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria Liburudenda
	Hitz Liburudenda
ELORRIO	Ilargi
IURRETA	Iurreta kopistegia
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak




Skakeitan KONTZERTUAK DURANGO :: Abenduak 13

Rock, ska eta hip-hop doinuak Skakeitanen eskutik

Durango Skakeitan talde donostiarraren doinuak entzuteko aukera egongo da domekan. 2008an sortutako bandak kontzertua eskainiko du Plateruenean, 19:00etan. Iaz kaleratu zuten azken diskoa, *Nola galdu denbora* izenekoa. Aurretik, *Galera Beats*

(2017), *Galera* (2016), *Mauka* (2015), *Orekariak* (2014) eta *Ahots gabekoen ahotsa* (2012) kaleratu zituzten. Euskal Rock Erradikala zenaren funtsa ska, punk, reggae edo hip-hop doinuekin bateratzen dute taldea osatzen duten zortzi musikariek.



Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Trolls 2: Gira Mundial**
barikua 11: 17:00
domeka 13: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Para toda la vida**
barikua 11: 19:00
zapata 12: 19:30
domeka 13: 19:30
astelehena 14: 18:30
martitzena 15: 19:00
eguztzena 16: 18:00

• **Nieva en Benidorm**
barikua 11: 19:00
zapata 12: 19:00
domeka 13: 19:00
astelehena 14: 18:30
martitzena 15: 19:00
eguztzena 16: 18:00

• **El verano que vivimos**
barikua 11: 19:00
zapata 12: 19:00
domeka 13: 19:00
astelehena 14: 18:30
martitzena 15: 19:00
• **En guerra con mi abuelo**
zapata 12: 17:00
domeka 13: 17:00
• **Dragoiaren gidaria**
zapata 12: 17:30
domeka 13: 17:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Sentimental**
domeka 13: 19:00
astelehena 14: 19:00

:: Zornotza ARETOA

• **Emma**
barikua 11: 19:00
domeka 13: 19:00
astelehena 14: 19:00
• **Dragoiaren gidaria**
domeka 13: 12:00

Abenduaren 11n

ABADIÑO musika
‘Azal Berritzen’, Esti eta Mikel Markez, 19:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO musika
Joseba Irazoki, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO musika
Los Rebeldes del Swing, 19:00etan, Landako Gunean.

DURANGO musika
Esteban Elizondo Iriarte, 19:30ean, Andra Mari basilikan. Organo hizketaldi-kontzertua, Arandoño kultur elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA musika
Inun, 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 12an

BERRIZ antzerkia
‘Losers’, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘La maniobra de Heimlich (Vomitando los 80)’ (Mama mea Producciones), 19:00etan, San Agustin kulturugunean.

DURANGO antzerkia
‘Turistrendo’ (Trapu Zaharra), 18:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO antzerkia
‘¡Ese no!’ (Banarte), 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA musika
Gozategi, 12:30ean eta 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 13an

ABADIÑO film emanaldia
‘Stardog & Turbocat’, 17:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO kontzertua
XXV. Txistu Kontzertua, 19:30ean, Landako Gunean. Silboberri elkarteak.

ELORRIO antzerkia
‘Tartalo’ (Logela Multimedia), 16:00etan, Arriola antzokian.

Abenduaren 15ean

ZORNOTZA zinekluba
‘Retrato de una mujer en llamas’, 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 16an

ABADIÑO ipuin kontaketa
‘Sorgina txirulina’ Ipuin kontalaria, 4-5 urteko neska-mutilei zuzenduta. LH 1., 2. eta 3. mailakoentzat, 17:45ean. Gonbidapenak aurreko astelehenean mediatekan.

DURANGO dokumentala
‘La montaña desnuda’, 17:00etan eta 19:00etan, Zugaza zineman.

Abenduaren 17an

DURANGO zine zikloa
Rock&Zine Zikloa: Western Star, 20:00etan, Zugaza Zineman.

Abenduaren 18an

BERRIZ antzerkia
‘Tartalo’ (Logela Multimedia), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika
Joseba B. Lenoir + Gaizka Insunza, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO hitzaldia
‘Euskal artean zehar ibilbidea, Bilboko Arte Ederren Museoko bildumaren eskutik’ (Hizlaria: Arantza Pereda Angulo), 18:00etan, Arte eta Historia Musean.

DURANGO bertso-antzerkia
‘Erradikalak ginen’ (Ane Labaka eta Beatriz Egizabal), 19:30ean, Landako Gunean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



Beldurrik eragin barik errealitatea koloreztatu gura duen 'Tartalo' aurkeztuko du Logela Multimedia, domekan

Logela Multimedia elorriarrek umeentzako ikuskizun berria estreinatuko dute domekan Arriola kulturgunean, 16:00etan; 45 minutuko obra da



Bigarren geltokia, Berrizen

Domekakoa ez da izango *Tartalo*-ren eskualdeko emanaldi bakarra. Datorren barikuan, hilak 18, Berrizko Kultur Etxean egongo da ikusgai Logelaren azken lana. Beste emanaldi batzuk ere hitzartuta dituzte. Bizkaian Portugale-

Domekan Elorrioren egongo da emanaldia; abenduaren 18an Berrizko Kultur Etxean eskainiko dute 'Tartalo'

ten, Barakaldon eta Galdakaon, eta Gipuzkoan Donostian eta Elgoibarren, besteak beste. "Ibilbidea egiten hasia beharko lukeen obra da, baina pozik gaude, azkenean emanaldi batzuk lotu ahal izan ditugulako", azaldu du Ander Garaizabalek.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Tartaloren kondaira fantastikoa izango da Logela Multimediaren ikuskizun berriaren ardatza. Joxemiel Barandiaran izango da obrako protagonista, eta narratzailearen txokotik bere abenturak eta mitologiako Tartalo izakiarenak kontatuko ditu. Gaztagilea da Tartalo, begibakarra, eta herrian beldurra diote, gizakiak panpina bihurtzen ei dituelako. Baina ipuin tradizionalan ageri diren beldurrezko elementuak umore eta kolore bihurtu dituzte Logelako kideek. "Obra koloretsua da, dibertigarria, eta ikusteko oso erraza, bizi dugun sasoi honetarako aproposa. Umeek gustuko izango dute, ziur", azaldu du Ander Garaizabal Logela Multimediako kideak; berak egingo ditu Barandiaranenak. Gaizka Chamizo eta Eneritz Garcia izango dira gainerako aktoreak. Imanol Garaizabal da zuzendaria.

Domekan izango da emanaldia, 16:00etan, Arriola antzokian. Hiru ordu laurdeneko iraupena du antzezlanak.

Laugarrena umeentzat

Logela Multimedia umeentzat egiten duen laugarren lana da *Tartalo*. "Sentsazio onekin gaude. Ibilbide luzea dugu, eta horrek esperientzia ematen du. Era honetako lanak egitea aukera polita da gure ikus-entzunezko hizkuntzak eszenara eramateko", esan dute taldekideek. Hain zuzen ere, lan berri hau erronka tekniko ere izan da elorriarrentzat. "Bideokamara bat ipini dugu na-

Logela Multimedia umeentzat egiten duen laugarren lana da 'Tartalo'

rratzailearen txokoan, eta zuzenean egiten duguna pantaila nagusian proiektatuko dugu. Irudiari beste geruza batzuk sartuko dizkiogu, eta zuzeneko eszenografia bat egin dezakegu horrela, bestelako narrazio modu bat. Lehenengo aldia da ho-

rrerako zerbait egiten duguna", gaineratu dute.

Alde teknikotik ez ezik, istorioa kontatzeko moduagaitik ere erronka bat izan da *Tartalo* Logelarentzat. "Ipuin tradizionalan egon daitezkeen beldurrezko elementuak kendu eta umorezkoengaitik ordezkatu ditugu", azpimarratu dute. Edorta Barruetabeña gidolari durangararen laguntza jaso dute horretarako. Lan hau hirutik zortzi urtera bitarteko umeentzat egin

Ipuin tradizionaleko beldurrezko elementuak umorezkoengaitik ordezkatu dituzte

gura izan dute, beste adineta-koek ere gozatu ahalko duten arren. "Logela Multimedia lanek badituzte berezitasun batzuk, ikus-entzunezko lengoia berezi bat, interakzioa lantzen duena... gustatzen zaigu umeen aurrean horrelako lengoia

erabiltzea, magia berezi bat sortzen delako hor", nabarmendu du Ander Garaizabalek.



'Tartalo'.

Abenduak 12, zapatua
19:00etan, Antzerkia

EL BUEN HIJO
DE PILAR ALMANSA

ROSA MERÁS
JOSU EGUSKIZA

UBIKAZIOA
CECILIA GEJO

Abenduak 19, zapatua
19:00etan, Antzerkia

'La maniobra Heimlich (vomitando los 80)'
Mama Grea Producciones

San Agustín KULTUR GUNEAK

#KulturaSeguraDa

ABENDUAK 18
HELDUENTZAKO IPUIN KONTALARIA

VIRGINIA IMAZ
"La soñadora..."

Ordua: 19:00

YOGIPUINAK

YOGA ETA IPUINAK

URTARRILAK 4
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA

MAITE ARRESE
"Yogipuinak III" (Yoga + ipuinak)

Ordua:
11:00 3-5 urtekoak (lagundurik)
12:00 6 urtetik gorakoak

*Sarrera gonbidapenarekin izango da. Bibliotekan jaso daitezke.

Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

Aurreikuspenak "beteta eta gaindituta" Gerediaga elkarteak pozik agertu da 55. Durangoko Azokak eduki duen harreragaz

Durangoko Azokaren denda digitalak ia 28.000 produktu saldu ditu abenduaren 4tik 8ra bitartean; eskari kopurua dela-eta, bidalketak egiten jarraitu dute



Arantza Atutxa eta Nerea Mujika.

DURANGOKO AZOKA • A.M.

Durangoko Azokaren antolatzailerik ezohiko edizio honen balorazio positiboa egin dute. Aurreikuspenak "bete eta gainditu" ostean, "hunkituta" daudela adierazi zuten balorazioa egiteko prentsaurrekoan. "Hunkituta gau-

de kulturzaleen aldetik jaso dugun erantzunagaz, ikaragarria da jaso dugun taupada kolektiboa", azaldu zuen Nerea Mujika Gerediaga elkartearen presidenteari.

Abenduaren 4tik 8ra bitartean, 7.800 erosketa egin ziren Durangoko Azokaren denda digi-

talean. Guztira, ia 28.000 produktu saldu ziren eta erosle bakoitzak 53 euroko gastua egin zuen batez beste, Gerediaga elkartearen esanetan. Asko izan dira egun hauetan agortu diren produktuak, eta hainbat sortzailek, eta diskoetxe eta argitaletxeetako

kideek material gehiago ekarri behar izan dute", azaldu zuen Arantza Atutxa Gerediaga elkartearen kudeatzaileak. Bidalketarik gehienak Euskal Herrian egin dira, baina Galiziara, Herrialde Katalanetara eta Espainiako estatutara ere bidali dituzte produktuak.

Denda digitalaz gainera, ezohiko Azoka honetako gune nagusi biak Landako Gunea eta Plateruena izan dira. 100 kultur jarduerak egin dira bietan eta horiek streaming bidez jarraitzeko aukera ere egon da. Gerediaga elkartearen esanetan, 43.500 lagunek jarraitu dituzte ekitaldi hauek streaming bidez. Bestalde, 'Zu non, han DA!' egitasmoaren barruan, zortzi udalerritan kontzertuak egin dira Durangoko Azokak iraun duen bitartean. Landako Guneako eta Platerueneako ekitaldiak ere kontuan hartuta, 5.800 lagunek parte hartu dute aurrez aurreko ekitaldietan. Publikoak izandako "jarrera txalogarria" nabarmendu du Arantza Atutxak. Balorazio positiboa egin arren, aurrez aurreko Azokaren "falta igarri dutela" adierazi dute.

Sormen Beka

Durangoko Azokan, Sormen Bekaren berri ere eman dute. Aurten, Bañolet telesaila saritu dute. Maia Iribarne eta Paxkal Irigoyenek 15.000 euro jasoko dituzte. Aurkeztu duten proiektuaren "planteamendu berri-tzaileagaitik" aukeratu dute batez ere. Lau ataleko telesaila da saritua, eta 2021eko Azokan aurkeztuko dute.

Gai librean

Ez da hainbeste zer, baizik eta nork

Bizi garen herria txikia da oso, are txikiagoa bizi gaituen hizkuntza komunitatea. Denok ezagutzen dugu elkar, onerako zein txarrerako. Horrek egilea jartzen du edukiaren aurretik, eta ez da berdin batek esan edo besteak esan. Azkenean, esaten duenak garrantzi handiagoa irabazten du, esaten denaren kaltetan. Egia da testuinguruaren jakitun izatea ezinbestekoa dela zer esaten den ondo interpretatzeko, eta horretarako, garrantzitsua dela esaten duena nor den ezagutzea. Hala ere, batzuetan, autorearen heriotza aldarrikatu eta nork esaten duen ahaztu beharko genuke, behingoz, esaten denari arreta jartzeko.

Zer esanik ez egitearekin: zer egin den baino nork egin duen gehiago inporta zaigu. Bistakoa da hau edozein



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

Denok ezagutzen dugu elkar, onerako zein txarrerako. Horrek egilea jartzen du edukiaren aurretik

Miresmena diegun autoreak idolatratzen jarraituko dugu, egiten dutena egiten dutela ere

arlotan: hartu gogoan norbaitek esan edo egin duen gauza bat eta jarri beste baten ahotan, pentsatu beste batek egin duela, berdin pertsona ezezagun batek, berdin begiko ez duzun norbaitek. Askotxo aldatzen da kontua, ezta?

Fenomeno hau nabarmena da politikan eta artean, beti ari baikara esandakoaren edota egindakoaren sinadu-

raren bila, eta sinatzailearen arabera asko aldatzen da esandakoarekiko edo egindakoarekiko gure iritzia.

Egia handi bat esan lezake gure beste muturrean dagoen norbaitek. Hori onartzen ez badugu, neurri batean, geure buruak engainatzen ari gara: miresmena diegun autoreak idolatratzen jarraituko dugu, egiten dutena egiten dutela ere; eta nor ez direnei, aldiz, egindakoa ezagutzeko eta zabalatzeko bidea zailduko diegu, izendunak ez direnez edo begiko ez ditugunez, aukerak ixten baitizkiegu. Izan ere, aldekoen eta kontrakoaren herrian, zorituraz, ez da hainbeste zer esaten den, baizik eta nork esaten duen. Sasoia da ikasteko komeni dela, noizean behin, esaldiari buelta ematea. Hartara deskubrituko ditugu autore berriak, egile ezezagunak, zabalduko zaizkigu mundu berrietarako ateak.

“Egoera hobetzen denean, futboleko atezainen eskola bat sortu gura dut”

Durungaldean atezaintzat propio bideratutako eskola bat abiatzea da Andres Leriaren ametsa urte berriari begira



Andres Leria De La Calle
Atezain entrenatzailea
Santurtzi, Durangon bizi da | 1971

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Ezkerraldeko eta Bilboko futbol klubetako makina bat atezain entrenatutakoa da. Orain hiru urte Durangora bizitzen etorri zen eta gaur egun Abadiño, Elorrio eta Zaldia klubetako atezainen ardura du; baita Biak Bat klubeko umeena ere.

Entrenatzaileen eskola sortzea zure amets bat gauzatzea da?

Egia esanda, bai. Aspalditik egin gura dudana zerbait da. Nire helburua ez da dirua egitea, ez dut hortik bizimodurik atera gura. Eragingo lituzkeen gastuak kubrituko balitu, pozik nengoke. Nire motibazioa beste bat da: irakasteak eragiten didan ilusioa.

Non sortuko duzu?

Zaldibarko Zaldia klubekoei nire asmoa komentatu nienean, euren zelaia eskaini zidaten. Izan ere,

horrelako eskola bat sortzerakoan, sarritan espazio falta traba handia izaten da. Klubek, batez ere herri handietakoek, talde asko dituzte eta zelai bakarra. Ez dago espazio nahikorik. Zaldibarren, oster, posible da eta erraztasunak eskaini dizkirate.

Noiz sortuko duzu?

Abendu amaieran atezainen kanpus bat antolatu gura nuen Zaldibarren, eta kanpus hori proiektu berria jakitera emateko abiapuntua izatea gura nuen. Egoera zein den ikusita ez dakit antolatu ahalko dudan. Kolokan dago. Eskola datorren urte hasieran abiatu gura nuke.

Bizkaian atezainen eskola asko dago?

Traparango Zugaztieta auzoan dago bat eta, nik dakidala, Bizkaian ez dago besterik. Durangaldekua bigarrena litzateke.

Durungaldeko hainbat taldetan zabilta. Zelakoa da eskualdeko atezainen maila?

Ona. Urte asko eman dut Ezkerraldean eta Bilbo erdigunean atezainak entrenatzen eta, egia esanda, Durungaldean maila oneko atezainak ikusten ditut, gizonak zein emakumeak. Lan egiteko oinarri ona da.

Elorrioko emakumeen liga jokatzeko ari dira, Euskal Ligan dabilzalako. Baina Abadiñoko eta Zaldia gizonen ligak gelditu daude. Jokalarien garapenean atzerapauso bat eman daitekeela uste duzu?

Batzuen kasuan, bai. Etxean egin daitekeena ezin daiteke konparatu zelaiko aurrez aurreko entrenamenduekin. Umeen kasuan, haur kategoriatik kadeetarako bidean daudenei eragingo die kalterik handiena. Bueltan kostatuko zaie.

Egoera ikusita, entrenatzeko modua aldatu beharko duzu?

Aldatu ez, baina aurretik egin dako bidean apur bat atzerantz egin beharko dugu eta ariketa berritzaile batzuk prestatzen nabili. Entrenatzaileok ere egoerara moldatu behar dugu, geure burua birziklatzeko gaitasuna erakutsi beharko dugu.

Hori, bueltatzen badira. Baina bueltatzen ez badira? Umeen kasuan batez ere, ohiturak aldatu badituzte...

Gertatu daiteke, baina une honetan esku artean ditudan datuak itxaropentsuak dira. Esaterako, Abadiñon harrobiko zein talde federatuetako atezainak eramaten ditut eta, oraingoz, 38 atezainetatik batek bakarrik utzi du. Azaro hasieran, eskola kirola baimenduta egon zen aste bakar hartan, ume guztiak bueltatu ziren. Beraz, baikorra naiz.

Umeen kasuan, non dago lehia eta jolasa bereizten dituen marra?

Umeekin jolasa da behinena. Adin horietan ezin duzu exijitu, jolasen bitartez ahalegintzen naiz fundamentuak irakasten: zelan blokeatu baloia, zelan bota lurrera... Eta ez dira txikikeriak. Oinarritik hasi beharra dago etxea eraikitzen, eta, atezainen kasuan, arlo horretako adituek eskema batezaz lan egiten dute. Klub askok ez dute atezainen entrenatzailearik. Gertatu izan zait, klub batzuetara lanera joan, atezainei oinarri-oinarritzko ariketak agindu eta zelan egin ez jakitea.

Gazteagotan atezaina zinela, Bigarren B Mailan jokatu zenuen, Santurtzigaz, 1992tik 1994ra. Zelan aldatu da atezainen figura 25 urtean?

Goitik behera aldatu da. Lurrezko edo lupeztutako zelaian eta harria baino gogorragoak ziren baloiekin jokatzeko zen orduan. Hauxe esaten diet gaur egungo atezainei: "Orduan jaio bazinate, ez zineten atezainak izango".

Zaldibarko Zaldia klubekoei nire asmoen berri eman nienean, euren futbol zelaia eskaini didate"

Atezain batek behar dituen dohainen artean, zein da hobetzeko gaxena?

Atzerantz egin beharreko mugimenduak. Esaterako, baloia atezaina goitik gainditu duenean eta denbora tarte txikian atzerantz egin behar duenean. Oso mugimendu mota konplikatu da eta entrenamendu espezifikoak eskatzen ditu.

Zure talderako, zer duzu gurago: atezainen erreflexu arinak dituen atezain txikia ala aireko jokoa segurua den garaia?

Erreflexu arinak dituen. Atezain batek ez du zertan garaia izan aireko joko segurua izateko. Juanjo Valencia, Athleticen atezain ohia, ez zen oso garaia, baina inork baino gehiago saltatzen zuen eta oso segurua zen aireko jokoa.

Binara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

"Lasterketaren hasiera-hasieratik helmugara heldu arte eman nezakeen dena eman dut"

Gurutze Frades gustura geratu da Daytona Challenge proban egindako lanagaz. Daytonako autodromoan lehiatutako munduko txapelketa 30. tokian amaitu zuen joan zen domekan; osoa emaitza ona da, izar guztiak egon zirelako han



Gurutze Frades Daytonako autodromoan. GURUTZE FRADES



TRIATLOIA • JOSEBA DERTEANO

PTO triatleta profesionalen erakundeak antolatutako Daytona Challenge probak munduko triatloilaririk onenak batu zituen joan zen domekan Floridako (AEB) autodromo famatuan. Munduko txapelketa zegoen jokoa eta izen handi guztiak hantxe izan ziren, baita Gurutze Frades iurretarra ere. Parte hartzaileen maila ikusita, 30 onenen artean sailkatzeko borrokan ibili gura zuen iurretarrak eta lortu du helburua:

Igeri egin ostean, 41. postuan heldu zen lehenengo trantsiziora, eta bizikletan hiru postu irabazi zituen

30. tokian amaitu zuen proba. Iurretarra gustura dago egindako lanagaz. "Lasterketaren hasiera-hasieratik helmugara heldu arte eman nezakeen dena eman dut. Dena ematera etorri nintzen eta horrela izan da", adierazi du sare sozialetan.

Fradesen lasterketa

Triatloilariek ez zuten autodromotik irten. Azpiegitura erraldoiaren barruko lakuan aritu ziren igerian

eta, ondoren, obaloari itzuliak eman zizkioten bai bizikletan baita korrika ere. Frades 41. tokian heldu

Triatloilari iurretarrak parte hartzaile guztien arteko 15. denborarik onena lortu zuen korrika

zen lehenengo trantsiziora. Hona-koa izan zen bere denbora igerian: 31.10. Bizikletako 80 kilometroetan (1.59.06) lan txukuna egin zuen eta hiru postu aurreratu zituen, nahiz eta "akats taktikoren bat edo beste" izan zuela onartu duen.

Korrika egin beharreko 18 kilometroak izan ziren emankorrenak. Parte hartzaile guztien artetik 15. denborarik onena izan zen berea: 1.10.17. Ondorioz, hainbat postu aurreratu zituen, 30.era heldu arte.

Honako hau izan zen bere azken denbora: 3.43.28. Paula Findlay munduko txapeldunak baino 18 minutu gehiago behar izan zituen.

Azpimarratzekoa da Anne Haug alemanaren bigarren postua. Minutu biko zigorra bete behar izan zuen korrika hasi aurretik. 13. postuan ekin zion eta, sekulako erritmoan, txapelduna ez beste guztiak aurreratu zituen.



Etxean irabazi eta kanpoan berdindu, Amorebieta lidertzara eramane duen formula

FUTBOLA • J.D.

Jardunaldiak aurrera doaz eta Amorebietak sendo jarraitzen du Bigarren B Mailan. Etxean irabazi eta kanpoan berdindu. 'Ingelesen batez bestekoa' lez ezagutzen den formula erabilita, bere multzoko liderra da zortzi jardunaldi joan direnean. Etxean jokaturako lau partiduetan irabazi ditu eta kanpoan jokaturako hiru berdindu. Lezaman Athletic B-ren kontrako porrota da formula apurtzen duen emaitza bakarra.

Bestalde, Durangoko Kulturala laugarren tokian dago maila bat beherago, Hirugarren Mailan. Inurri lana egiten dabil, irabazi ezin duenetan berdinketa lortuta gutxienez. Partidu bakarra galdu du orain arte. Asteburuan Santurtzi taldea hartuko du etxean.

Jokaldia

Robin Morton

Amerikako Estatu Batuetako Pennsylvanian jaio zen 50eko hamarkada amaieran. Delaware ibaiaren arroak erabat baldintzatu zuen bere izaera. Philadelphia industria hiria izanik, nortasun gogorra bezain oldarkorra eman zion. Hiriburua- ren izenak "senideen arteko maitasuna" esan nahi du. Horrek guztiak enpresa- ekimenerako grina eman zion. Ezkondu ondoren, eta senarra ziklista izanik, kudeaketan lagundu zion taldeari. Gerora, egituraren ugazabak ezbehar bat izan zuen. Zezenari adarretatik heldu eta berak hartu behar izan zuen aginte- makila; bat-batean talde profesional baten jabe bihurtu zen. Bere lanbidea utzi, eta 25 urterekin buru-belarri hasi zen bere zeregin berrian. 1983. urtea zen. Milano bizikleta erakustazokara joan eta Gianni Motta ziklista ohia ezagutu zuen.



Alfontso Arrojo Monasterio
Kazetaria

"Historikoa, ezen lehen aldiz, emakume bat zuzendari moduan aritu zelako gizonen lasterketa batean"

"Aitzindaria izan zen Robin Morton. Ia 40 urte geroago, Cherie Pridham britainiarrak hartu dio lekukoa"

Hizketan hasi eta bien asmoek bat egin zuten. Batak European lasterketak egitea zuen helburu, besteak Estatu Batuetan bizikletak saltzea. Honela, italiarrak bigarren babesle bat aurkitu eta egitura babestu zuen. Hori gutxi ez, eta 1984ko Italiako Giroan parte hartu zuen taldeak. Alabaina, lasterketan autoan joan ahal

izateko baimena, antolatzaileek bozketa egin ondoren jaso zuen. Historikoa, ezen lehen aldiz, emakume bat zuzendari moduan aritu zelako gizonen lasterketa batean. Denetik pairatu zuen. Ilea moztera ere derrigortu zuten inoiz. Sekulakoak eta bi entzun behar izan zituen; XX. mendeko txirrindularitza matxista. Aitzindaria izan zen Morton. Ia 40 urte geroago, Cherie Pridham britainiarrak hartu dio lekukoa. Orain arte, gizonen kontinental mailako Virtus taldearen jabea eta zuzendaria izan da; 2021ean, berriz, World Tour mailako kirol zuzendaria. Emakume bakarra. Berdintasunerako urrats garrantzitsua, nahiz egituretako beste arlo batzuetan pauso hori emanda dagoen. Erabaki- gu- neetan parekidetasunera heldu beharra dago. Pridhamek dioen moduan, gaitasunak ez lukeelako generorik behar.

DURANGALDE

Etxeitako artea

Arbola baliotsu bat dago Garain, Etxeita auzoko zelai aldapatsu batean. Zuhaitz bakan edo bereziaren izendapena jasoa du bertako arteak, Etxeitako Artea lez ere ezaguna. Izan ere, 19 metroko diametroa eta 60 metroko zirkunferentzia ditu, azpian 300 ardiri gerizpea emateko beste.



KO TXOKOAK ?

Amillako iturria

Guenzelaitik Asuntzarako bidean, ANBOToko mendilerroaren magalean Amillako iturria dago. Tenperatura altuekin ur botila gustura betetzen den lekua izaten da. Aste honetako eguraldi hotzagaz, izoztuta egongo al da iturriko ura?





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

// AUKERA

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E= E. 135.000 €**

IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Igogailua. **C.E.E= G. 115.000 €**

LAUBIDETA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. **C.E.E= E. 170.000 €**

ARAMOTZ: 3 logela, komun berria, sukaldea eta egongela. Berriztatua. Eguzkitsua. **125.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN IGNACIO: 2 terraza. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela handiak. Garajea. Igerilekua. **C.E.E= F. 265.000 €**

MIKELDI: Erdialdean dagoen apartamentua. Erdi berria. Pisua eta 19 m2-ko ganbara batzeko aukera. **C.E.E= E.168.500 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E=G. 215.000 €**

AMILBURU: 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m2-ko terraza. Trastelekua. Garajea. **C.E.E= E. 265.000 €**

IURRETA: MASPE. 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E:F. 160.000 €**

SAN AGUSTINALDE. 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.

ANBOTO: 3 logela eta sukalde-egongela. Garaje itxia aukeran. **C.E.E=F 160.000 €**

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 198.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 186.000 €.**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 160.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila eraikitzeke baimenagaz. **250.000 €**

MATIENA: J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. 2 trasteleku. **C.E.E:E 145.000 €**

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatzeke. **125.000 €**

BERRIZ. BIDEAGAIN. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= F. 205.000 €.**

// LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

TRONPERRI: Garaje itxia. **21.000 €.**
ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000€-tik aurrera garajeak.

ABADIÑO: 160 m2. Egokitua. Dena erakusleioa 2 kaletan. **175.000 €**

F.J. de ZUMARRAGA: Aukera. 114 m2. SALMENTA. **150.000 €.** Negoziagarria.

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txibitena kalea. 4 logela. Logela guztiak kalera ematen dute. Komuna, egongela eta despentsa. Garajea eta trastelekua.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

// ABADIÑO

ABADIÑO: Torresolo kalea. 3 logela. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

TORRESOLO: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

// BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

// ATXONDO

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

// LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeke. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: Aldegoina auzoa. 7.500 m2. Baserri ederra, leku lasaia eta baketsua.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatzeke. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserria. Berriztatzeke. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeke.

// BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifi-a barne.

// GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

// LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

// LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.


www.inmoduranguesado.com



DURANGO
3 logela
62,2 m²
ARAMOTZ: egongela, sukaldea eta komun berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Laster igogailua ipiniko dute. Garajea aukeran.
125.000 €. C.E.E:E



DURANGO
2 logela
63 m²
ARAMOTZ. Lehen 3 logela. Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Laster igogailua ipiniko dute. Garajea aukeran Bizitzen sartzeko moduan.
129.500 € C.E.E: E.



DURANGO
67 m²
2 logela
SASIKOA: Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoalde. Argitsua. 28 m2-ko garajea eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua.
229.000 € C.E.E:E.



MATIENA
150 m²
TXINURRISOLO: 52 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 8 m2-ko ganbara. Igogailua ipiniko dute. Bizitzera sartzeko moduan. C.E.E: Bidean.
99.000€



ZALDIBAR
3 logela
59 m²
SANTA ISABEL: Egongela eta sukaldea. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. BERRIZTATZEKO. Argitsua. 8 m2-ko trastelekua eta 40 m2-ko lursaila. Alokairuan, erosteko aukeragaz.
84.000€



MUNTSARATZ
3 logela
81,7 m²
Arlozabal: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua.
190.000 €. C.E.E: E

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukaldea, garbitokia eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. **320.000 €/E.E.E=E**

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **LEHEN 205.000 € / ORAIN 198.000 €/ E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 €/ E.E.Z=E**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 €/ E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 342.576 € /ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**

URKIOLA AUZOA: 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. **285.000 €/ ORAIN 248.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 €/ E.E.Z=G**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitzeke baserria. **460.000 €.**

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. **LEHEN 200.000 € / ORAIN 168.000 €/ E.E.Z=F**

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 210.000 € /E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIAK

IZURTZA

BITAÑO AUZOA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **75.000 € / E.E.Z=G**

Botikak

BARIKUA, 11 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 12 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

BALENCIAGA Ezkuri plaza 8 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

NAVARRO Artekaia 6 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 13 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 14 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 15 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 16 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 17 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU

GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

GOZOTEGIA

OKINDEGIA

Zorionak, Izei (831. alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, Alize! Ondo pasa zure eguna, gure etxeko sorgintxua. Gari, ama eta aitatxo.



Zorionak, Zigor Guerediaga! Abenduaren 12xen urteik egingo dozuz, aurten ezberdin ixen arren ondo paseu! Hau danau pasetan daniel ospatuko dogu topera. Durangoko zure lagunek!



Zorionak iruñeko Izaro Argos Velerdasi Berrizko familiaren partez, bere lehenengo urtebetetzean. Mosu handi bat batez ere lehengusu Gari eta amama Maribiren partez.



Abenduaren 15ean Zuriñe Nogalesen 11 urte egiten ditu. Zorionak, neskak, gurasoen eta Carmenen partez.

Eguraldia

ZAPATUA 14° / 8° ☁

DOMEKA 11° / 7° ☁

ASTELEHENA 17° / 11° ☁

MARTITZENA 14° / 9° ☁

EGUAZTENA 12° / 7° ☁

EGUENA 11° / 6° ☁

eta gabonetako

POTOLUE HEMEN

jausten bada? BERRIRO



94 620 04 57

Loteria Hiru - Administrazioa Zb. 1
San Prudenzi 2 - MATIENA (Abadino)

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko

Baserritarren

Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

“Iurretarrei eskerrak eman gura dizkiet bene-benetan, eta daukaten herri nortasun horri eusteko eskatu gura diet”

Azken 24 urteetan lurretako anbulatorioan lanean egon eta gero, Jose Luis Balentziaga Muñoz medikuak erretiroa hartu du

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Bai. Egia da. Koronabirusak bere lanaren azken hileak markatu ditu. Aitortu digu egoera larriak bizi izan dituela birusagaz. Baina, bueno. Medikuek egiten duen azken elkarriketa haxe izan daitekeelakoan, ez dugu gauza ilunez berba egingo. Koronabirusik bako elkarriketa izango da. Covid free. Balentziagak merezi du hainbeste. Herritarren artean hain estimatua den mediku bat ez delako egunero jubilatzen.

Tratu bat egitea proposatzen dizut: elkarriketa koronabirusa aipatu barik egitea. Zer iruditzen zaizu?

Ederto! Pozik hartzen dut proposamena. Egia esan, apur bat aspertuta ere banago. Kokoteraino.

Konforme. Bada, galdetzen hasiko naiz: erretiroa hartuta, zelan?

Pozik. Halantxik gura izan dudalako eta erronka pertsonalak egiteko astia hartu gura dudalako. Emazteagaz egotea, ilobekin egotea, txakurrak zaintzea, mendian ibiltzea, naturaz gozatzea. Osasuntsu nago eta denbora hartu gura dut hori dena egiteko. Nire erabakia izan da erretiroa hartzea. Pozik nago.

Askok bere betiko medikua galduko dute aurrerantzean.

Bai. Argi dut 24 urteko hartu-emanaren ostean askok galera sentituko dutela. Azken asteotan hori esan izan didate hainbatek. Batzuekin hartu-eman estua izan dut. Nik ere sentituko dut falta. Azken finean, oroitzen duten daramatzazu etxera eta oroitzen duten horiek pertsona lotuta daude beti. Pertsonak daude oroitzen duten; ez gaixotasunak.

Gutxi izango dira zure kontsultatik sekula ere pasatu ez diren iurretarrak.

Hona lanera etorri nintzenean, mediku bi geunden. Gerora, hirugarrena etorri zen. Pazienteen zati handi bat nire kontsultatik pasatu da eta herritar asko ezagutzen dut. Orokorrean, errespetuz tratatu izan naute beti. Hartumana erraza izan da. Leku ona izan da lanerako. Egon izan naiz Basaurin, Bilbon, Burgosen. Hirietan. Baina hau askoz ere sanoagoa delakoan nago. Hemen errazagoa da dena. Zuk ematen duzu eta pazienteek zuri ere ematen dizute.

Azken urteotan kompetentzia agertu zaizue: Dr. Google.

Bai. Segun eta kontsultara zein datorren, segun eta pazienteak zein erabilera informatiko dituen,...

aurreratu egiten naiz. Akaso dena delako hau Interneten irakurri duzu? Beharbada pentsatu duzu hau edo beste hau izan daitekeela gaixotasuna?, galdetu izan diet. Bai, horrelakoak gertatu izan zaizkit. Dena dela, horregaz tratatzea ez da gatxa. Pazienteak zure mezua onartu dezan, ezinbestekoa da konfiantza izatea. Internetek emango du bere iritzia, baina pazienteak medikuaren aholkua gailenduko da. **Zeintzuk dira ondo bizitzeko behar ditugun ibuprofenoak eta parasetamolak?**

Gaur egun ikusten ditugun gaixotasunik gehienek gure ohiturekin eta portaerekin dute lotura. Ez da erraza esaten, baina gure gizartean oso errotuta daude janaria eta edaria. Tabakoa geroago eta gutxiago. Orain hamarkada batzuk baten bat kalean korrika egiten ikusi izan bagenu, zoratuta zegoela esango genuen. Gaur egun aldatu egin da hori. Adin guztietan. Eta eskerrak! Ohitura sanoak bultzatu behar ditugu, eta, tira... lantzean behin laban egiten dugula? Bueno, ez da ezer pasatzen.

Azken mezu bat eskatuko dizut. Zer esan iurretarrei?

Ufa! Ez da erraza. Alde batetik, eskerrak emango nizkieke. Bene-benetan diot. Eta jarraitu dezatela herri izaten. Eutsi diezaiotela daukaten herri nortasun horri. Hori oso inportantea da. Ni hona ailegatu nintzenean puri-purian zegoen desanexioaren kontua. Orduan, nik Bilbon lan egiten nuen eta lanpostua Landakora lekualdatzeko eskaria egin nuen. Eta hain justu, momentu hartan zerbitzuak berrantolatzen ari zirela-eta, lanpostua hemen esleitu zidaten. Ez zen nik eskatutakoa, baina hara: ez naiz sekula ere damutuko.

Lauhortza

Ainhoa Olaso
Sopelana
Ikaslea



Musika

Kantu batek eraldatzeko duen gaitasunaz aritu ziren, besteak beste, azaroan Loraldia kultura festibalean. Nola nerabezaroan nortasuna eraikitzeke parte inportante bat den musika, kohe-sioa sortzeko gaitasuna duena, herri imajinarioan hitzak iltzatzeko beste, torturatzeke ere erabilia, eta denboran bidaia-tzeko makinariaren parte dena.

Musikak pandemia bat arintzeko ere balio du (kantuek beren zati baltsamikoa izan behar dutela dio Ordorikak). Badira botikineko abestiak, analgesiko baten bila goazen bezala tratatzen ditugunak: eta jendea, gauero abesti triste berdina entzuteaz nekatu zen.

Homogeneizatzeko kantutak: 2003ko urtarrean, Nicolas Sarkozyren aginduz, Marseillesaren kontrako delituaren legea onartu zen: sei hilera arteko kartzela zigorra eta 7.500 euroko isunarekin. Frantziako gazteak ereserkia ikastera behartuta daude.

Eta begirada emantzipatzeke, kantutak, ipuinak, bertsoak, zinema...: “Gure begiek gutxi ikusten dutenez, teleskopioa asmatu zen, urruneko mundu ezezagunak behatzeko. Kamera, aldiz, errealtateak erregistratu eta sakonago begiratzeko da”, D. Vertov. Zinea arte guztietatik garrantzitsuenak izan zen Sobietar Batasunean. Errusian XX. mende hasieran, %80k ez zekien idazten, ezta irakurtzen ere, eta irratiarekin batera, pelikula herri heziketarako tresna eskuragarrienak bihurtu ziren (etorkizuneko analfabetismoa irudigintza ez ezagutzea izango dela diote).

Plazak eta aulkiak, pantailak eta eleberrak. Herrian badaude entsegu lokal, zinema, liburutegi eta oholtzak, taupadaka esnatuz geldirik daudenak, sortzen eta eraldatzen segi dezagun.



Jose Luis Balentziaga Muñoz
Medikua
Markina-Xemein | 1957

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa